

Talaiariak, zirgariak eta saregileak



HAIZEA NUÑEZ
ABOKATUA

Bederatzi egun pasa dira Donostiako Aste Nagusi Piratari hasiera eman genionetik. Sei egun, eraso sexisten aurkako protokoloa aktibatu eta emakumeon* aurkako erasoak bata bestearen atzetik etortzen hasi zitzaizkigunetik. Bi egun Irutxuloko trans, bollera eta emakumeok*, uniformatuen blokeoaren gainetik Alde Zaharreko kaleak gauez hartu genituenetik. Egun bat besterik ez da igaro *Irrikitaldia* amaitu denetik eta oraindik korapiloak ditut barruan: bata diafragma aldetik, bestea zintzurrean.

Zaila egiten zait, oso zaila, onartzea geure buruak ohitu behar ditugula beldurrarekin bizitzera. Ez dut onartu nahi emakume*, bollera edo transa izatea beldur izatearen baliokidea dela. Ez dut onartu nahi aske izateko besteeengan beldurra sortzeko indarra, indarkeria, behar dela. Baina azken egunetako errealitateak horretara bideratzen nau. Nola egin behar diogu aurre gure aurkako indarkeriari? Nola egin aurre gu erasotzera datorrenari? Zein da autodefentsaren momentu eta ekintza zilegia? Erasotua izan eta gero, noiz hasten da osatze prozesua? Zer egin sinesten ez diguten instituzio mediku, polizial eta administratiboen indarkeria instituzionalaren aurrean?

Galderez gaindi, hiru helduleku gorpuztu dira aste horretan, behin behinako ziurtasunak. Talaiariak azken urteetan egindako lana ezinbestekoa izan dugu: ur azpiko korronteak eta zeruko ekaitzak identifikatu gabe ezin izango baikenion erasoaldi honi neurria hartu. Zirgariak irakatsi diguten indar kolektiboari esker gai izan gara erasoek hondoratutako urpeko ontziak ur azalera ekartzeko. Eta, azkenik, etengabe zabaltzen ari garen saregileen ehunak babesleku ordezkazina eraiki du; instituzioek eta polizia indarren beraien kokapen eta izaera heteropatriarkala eta kapitalistatik eman ezin diguten gune segurua.

Gaur ezin izan dut beste gaiez idatzi. Azken egunetako iluntasunean aurkitu dudana argia piztu dutenak ditut buruan. Hondamendian bizirik irauten lagundu diguten abangoardiako hiru zutabe horiek osatu dituzten emakume*, bollera eta transak. Milesker talaiariari, zirgariari eta saregileari. Eta eskerrik asko atzeraguardia zaindu duten Pirata guztioi, egitaraua gelditu genuen egunean sukaldari lanetan aritu ziren Kijerako kide eta anonimoei: duela urte batzuk ezinezkoa zena aurtan posible egin duzuen guztioi. Elkarrekin indartsuagoak gara. Elkarrekin osatzen gara. Elkarrekin edozer dugu posible. ●

Hitz morez margotuak



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Bitan ikusi dut uda honetan, eta bitan haserretu. *Gatibu*, Sanfermine-tan. Iraultza feminista izango delako, kanta eskainia nafar sorginei. Ez al ginen ba printzesa *kapritxosiek*, aramu pozoitsuak? *SuTaGar*, Bilboko jaietan. Eraildakoen eta bortxatutako emakumeen omenez errepertorioko balada sentikor erromantikoena, sekula moreak izan ez diren *hitz margotuak*.

Hamarkadetan patriarkatuarekin arazorik zutenik aipatu ez duten gizonezko hegemoniko pribilegiatuez osaturiko taldeek eszenatokitik nahi dute feminismoa bultzatu. *Neofeminista naiz* txapa merke lortzen da, esaldi bat esa-

teak ez du sobera nekatzen eta. Hau populismoa da, eta apropiazioa. Zinezko errekonozimendua nahi dugu, apala, ez paternalista eta borroka honen subjektuaren beharrei begira.

Lagun gizonezko, feministok zenbait gauzatan arrazoia dugula iruditzen hasi bazaizu, egin ezazu egin beharreko barne lana, dekonstrukzioa, erreparazioa, hausnarketak... Jabetu zaitez, orde, patriarkatuak mikrofona, lehen lerroa, ikusgarritasuna eta protagonismoa zuei eman eta besteoi ukatzen dizkigula. Patriarkatua borrokatzeko eman ezazue pauso bat atzera. Belarri eta begi gehiago, aho gutxiago. ●